

Matrikula aldia ireki du Berrikuntza didaktikoari buruzko masterrak

2010/11/25

Azaroaren 29tik urtarrilaren 21a bitartean irekita egongo da matrikula egiteko epea Berrikuntza didaktikoari buruzko masterrean. Berez, masterraren izen ofiziala hau da: **“Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan”**.

Matrikula egin ahal izango da fakultateko Idazkaritza akademikoan, Eskoriatzara etorruta, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatera, eta balioko du **4.950 euro**.

Argibide gehiago nahi izanez gero master honen gainean, jo **Berrimet** webgunera.



Nori zuzendua

Masterra **hezkuntzan diharduten profesionalei** zuzenduta dago: hezkuntza zentroak, hezkuntza administrazioa eta hezkuntzan diharduten beste erakundeak, hain zuzen, zeregin ezberdinetatik berriztapen-proiektuak sustatu, diseinatu eta kudeatzen dituztenak. Masterra 2011ko urtarrilean abiarazi eta inskripzio epea 2010ko urrian hasiko da.

Metodologia

Master honek **ikaslea izango du ikaskuntzaren ardatz**. Ikasleak zuzendutako proiektuak bere prestakuntza-ibilbidea markatuko du. Metodologiak, bestalde, honako alderdiak biltzen ditu: kasuen azterketa, egoerei buruzko azterketa eta hausnarketa, informazioaren bilaketa nahiz eztabaida eta proiektuetan oinarritutako bestelako metodologiak. Hori guztia modalitate erdi-presenzialarekin (%30 aurrez aurrekoa eta %70 on-line).

Egitura

Masterraren titulazioa lortzeko, ikasleak **60 ECTS** kreditu egin beharko ditu: 20 ECTS arlo komun derrigorrezkoetan; 20 ECTS masterraren bi ibilbideen artean aukeratuta; eta 20 ECTS praktikak eta master amaierako proiektuan.

Antolaketa

Mariam Bilbatuak zuzenduko du master hau, berau Hezkuntza Zientzietan doktorea, HEZIk zuzendaria Mondragon Unibertsitatean eta HUHEZIk irakaslea. Ikastaroa, berriz, 2011ko otsailaren lehen asteen hasiko da, 2011ko abendua arte. Kostea: **4.950 euro**.